



## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA. 2022KO APIRILAREN 27KO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA.

### Honako batzarkide hauek bertaratu dira:

#### Azkoitiko ordezkariak

Javier Zubizarreta Zubizarreta.....(% 12,04)  
Ana Azkoitia Urteaga ..... (% 12,04)

#### Azpeitiko ordezkariak

Aitor Bereziartua Larrañaga.....(% 15,33)  
Nagore Alkorta Elorza.....(% 15,34)  
Amaia Etxeberria Etxeberria.....(% 15,33)

#### Beizamako ordezkariak

Pedro Mari Otaegi Urkizu.....(% 0,16)

#### Bidania-Goiatzeko ordezkariak

Miren Agurtzane Zelaia Arandia.....(% 0,53)  
Erramun Goikoetxea Amiama.....(% 0,53)

#### Errezilgo ordezkariak

Xebero Agirretxe Arruti.....(% 0,61)  
Bittori Otaegi Albeniz.....(% 0,61)  
Ane Ugartemendia Etxeberria.....(% 0,61)

#### Zestoako ordezkariak

Mikel Arregi Urrutia.....(% 3,87)  
Margarita Eizagirre Rodriguez.....(% 3,86)

#### Idazkari kontu-hartzailea

Olatz Eizagirre Orbegozo

#### Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendaria

Orkatz Goenaga Ormazabal

#### Aholkulari juridikoa

Alejandro Castro Ubetagoyena.

### Ez dira etorri honako batzarkide hauek:

#### Aizarnazabalgo ordezkariak

Mari Karmen Arregi Agirre.....(% 0,81)  
Ander Etxabe Oliden.....(% 0,81)  
Maitane Telletxea López.....(% 0,80)

### Azkoitiko ordezkariak

Iraitz Otaño Mugika.....(% 12,03)

### Beizamako ordezkariak

Felix Urkizu Galarraga.....(% 0,16)  
Manuel Labaka Garmendia.....(% 0,15)

### Bidania-Goiatzeko ordezkariak

Aingeru Senperena Iraola.....(% 0,52)

### Zestoako ordezkariak

Garikoitz Mendizabal Etxeberria.....(% 3,86)

2022ko apirilaren 27an, arratsaldeko 18:06tan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ezohiko osoko bilkura bildu da.

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidania Goiatz, Errezil eta Zestoako udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, eta bertaratu diren ordezkariak toki-erakundearen % 80,86 ordezkatzeko dute. Mankomunitatearen estatutuen 10.6 artikulua honako hiru betekizun hauek ezartzen ditu Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia baliozkoa izateko:

- 1) Batzarkideen erdia gehi bat egotea.
  - 2) Batzarkideen botoen erdia gehi bat ere izatea.
  - 3) Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere.
- Hiru baldintza horiek lehenengo deialdian bete dira.





Lehendakariak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita % 80,86ko quoruma zegoela egiaztatu ondoren), eta sei udalerriko ordezkariak bertaratu direla adierazi eta gero, Batzar Nagusiko bilkurari hasiera eman dio. Jarraian, batzarkideek deialdiaren gai-zerrendan jasota dauden gaiak jorratu dituzte.

Gai zerrendan jasota dauden gaiak jorratu haurretik, bertaratuek aho batez, Beizamako ordezkarian kargu hartzea onartzen dute.

Beraz, Pedro Mari Otaegi Urkizu jaunak, Urola Erdiko mankomunitateko batzar nagusiko kide bezala kargu hartzen du.

### **1. 2022ko urtarrilaren 27ko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.**

Gai zerrendako puntu hau onartu haurretik, Zubizarreta jaunak, 2022 urtarrilak 27ko Batzar Nagusiko Ez-Ohiko Bilkuran, 2. Puntuari Lehendakariak esandakoari eta aktan agertzen denari erantzunez hurrengo esan nahi dute:

Lehenbizi, aurrean dauden erronkak ateratzeko, denok batera lan egiteko borondatea agertzen du, eta horrela jarraituko dutela dio. Ondoren hurrengo esaten du:

1.- Gure ustez, idatzi horretan kontraesanak daude eta ez du benetan auzietan eztabaidatu eta epaitegiek adostu dutena argitzen.

2.- Ez da Mankomunitatearen eta Lapatxan kudeaketa gaineko "auditoretzarik" egin, baizik eta zalantzan jarri dena da izenpetutako Hitzarmenaren eta eranskinaren legezotasuna, horiek onartzeko hartu beharreko akordioekin batera. Akordio horiei ere errekurtsioa jarri zitzaion.

3. Lehendakariak ondo dioen bezala, errekurtsio guztien pilaketa eskatu zen, euren arteko harreman zuzenagatik. Mankomunitateak, bere defentsan, aurkeztutako errekurtsioak bi multzotan bateratzea ere proposatu zuen, bahiz eta 2 zk. ko Epaitegiak (RCA 76/2016) atzera bota.

4.- Guk eskatuta, Lehendakariak aurkeztutako dokumentu zerrenda luzeak azalpen erraza du: Gure eskubidea izateaz gain, dokumentu guzti horiek Mankomunitateak helarazitako administrazio-espeditentean gehitu ziren, tramitatutako lehenengo Errekurtsioan (2 zb-ko Epaitegiaren RCA 76/2016), eta ez diren sartu beste bi Errekurtsioetan: 1 zb-ko Epaitegiaren 128/2016 eta 2 zb-ko Epaitegiaren 330/2016. Arrazoi horregatik eskatu zen Mankomunitateak igorritako Administrazio-



Espedienteak luzatzea, dokumentu horiek falta zirela ulertzen genuelako. Por zierto, ez Mankomunitatea eta ez Lapatx, ez ziren eskaeraren kontra agertu.

5.- 3.850.000 € noiz ordaindu ziren ziurtatzeko guk eskatutako proba, guztiz justifikatua zegoen. Izanda ere, itxura guztien arabera, ordainketak Hitzarmena onartu aurretik egin ziren, eta errepikatuko dugu, ordainketa ezberdinetan gainera.

6.- Lehendakariak gogoratzen du Udalek ez dutela dirurik jarri Azoka Plazan. Lapatxek jarri du dirua ba, eta ez al da Lapatxeko akziodun bakarra Mankomunitatea? Eta Mankomunitatea ez al dute 7 udalek osatzen?

7.- Ondorioz:

a.- Insistitu behar da hau ez dela Mankomunitatea edo Lapatxen kudeaketa aurkako auzi orokorra, baizik eta zehazki, hitzartutako Hitzarmenaren eta eranskinaren aurkako. Horretan oinarrituta, Azpeitiko Udala 3.850.000 €-rekin konpentsatzen da.

b.- Itxiera Funtsa ere ez du inork zalantzan jarri, eta ez da auzietan eztabaidatu. Epaitegietan ebatzi dena da, finean, Hitzarmena bat datorrela Mankomunitatearen Estatutuekin, bere eskumenekin, eta helburuekin. Guk uste dugu ez dela zuzena eta Epaitegiek ez digute arrazioa eman, 3 zb-ko Epaitegiaren epaia salbuetsita (RCA 70/2016 eta 128/2016), ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak baliogabetu zuena.

c.- Epaitegiek ez dute erabaki, ezta ere, dibidenduen inguruan ezer, bestek beste, ez dugulako inoiz horrelako ezer planteatu.

d.- Ez da egia, gainera, 3.850.000 € horiek Azpeitiko Udalak gordeta izan dituela (beste kontu bat da Kontu-hartzaileak hornitzeren bat egitea), zeran 2019ko urtarrilaren 29an Azpeitiko Udaleko Idazkariak egiaztatu zuen eranskinean jasotako inbertsioak egin direla 2.633.614,14 €-ko balioagatik. Dokumentua eransten dugu.

Lehendakariak, naiz eta Zubizarreta jaunak agertutakoarekin ados ez egon (eta epaitegietan prozedura judiziala amaitu eta Mankomunitatea/Lapatxi arrazoi eman diotela kontuan izanda), eskerrak ematen dizkio konponbide bat aurkitzeko bidea egiteko agertutako borondateagatik. Bide honetan, denon borondate onarekin, mankomunitateko herri denentzat onurak aurkitzeko aukera izango delakoan bait dago.



Arregi jaunak legealdia bukatu aurretik gauzak konpondu beharra azaltzen du faltsuan ez ixteko gatazka.

Guzti hori azaldu ondoren bertaratutakoek aho batez onartu dute 2022ko urtarrilaren 27ko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuren akta, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 80,86ko portzentajeaz.

## **2. Errezilgo ordezkartzan aldaketen berri ematea.**

Errezilgo Udalbatzak 2022ko apirilaren 12an egindako Ohiko Bilkuran, Luis Maria Amenabar Udal Batzarraren zinegotzi kargua hartu duen momentutik, Jon Ciarsolo Isart jaunak hartutako karguetan ordezkartzea erabakitzen du.

Ondorioz Urola Erdiko Zerbitzuen udal mankomunitatearen ordezkari bezala izendatu zuen eta Batzar honetan kargu hartzen du, Zestoako ordezkartza horrela geldituz:

- Severo M. Agirretxe Arruti. Ordezkoa: Luis Arakistain Ondarra.
- Luis Maria Arzalluz Amenabar. Ordezkoa: Maria Victoria Otaegi Albeniz.
- Ane Ugartemendia Etxeberria. Ordezkoa: Jose Antonio Labaka Beristain.

Eta Kontuen Batzorde Bereziko ordezkari, Severo M. Agirretxe Arruti eta ordezkari, Ane Ugartemendia Etxeberria izendatzea.

## **3. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena onestea, hala badagokio, Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.ren langileei ezarri beharreko ordainsarien igoerari buruzkoa.**

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.ren langileei ezarri beharreko ordainsarien igoerari buruzkoa**

## **IKUSIRIK**



I. Urola Erdiko Mankomunitateko Idazkari Kontu-hartzaileak 2022ko martxoaren 11an egindako lege txostena. Txosten honek honakoa dio:

*“Joan den 2021/12/29n, Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea argitaratu zen BOEn.*

*Lege horrek , III. Tituloko 1. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeraren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:*

*18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.*

*“- Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzintasunari dagokionez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021ekoen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kotraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.*  
...”

## KONTUTAN HARTURIK

I. Abenduaren 29ko 22/2021 Legearen 18. Bi artikulua

II. Eskumenari dagokionez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki Jardunbideko Oinarriak arautzen dituen) 22. artikulua Batzar Nagusiaren gain utzi du herri-langileen ordainsari osagarrien onartzea.

Hori dela eta,

## PROPOSATZEN DET

**Lehena.-** 2022ko urtarrilaren 1eko eraginarekin Urola Erdiko Mankomunitateko eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.Aren langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea onartzea, hau da, %2, 2021eko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuta.



Azpeitian, 2022ko apirilaren 11an

**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK**  
**Aitor Bereziartua Larrañaga**

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 80,86**

Azkoitiko ordezkariak (%24,08): Javier Zubizarreta Zubizarreta J. (%12,04), Ana Azkoitia Urteaga A. (%12,04),

Azpeitiko ordezkariak (%46): Aitor Bereziartua Larrañaga J. den Lehendakaria (%15,33), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,34), Amaia Etxeberria Etxeberria A. (% 15,33).

Beizamako ordezkariak (% 0,16): Pedro Mari Otaegi Urkizu J. (% 0,16).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,06): Miren Agurtzane Zelaia. A. (%0,53), Joxe Erramun Goikoetxea Amiama J. (%0,53).

Errezilgo ordezkariak (%1,82): Xeberro Agirretxe Arruti J. (% 0,61), Bittori Otaegi Albeniz A. (% 0,61), Ane Ugartemendia Etxeberria A. (% 0,61)

Zestoako ordezkariak (% 7,73): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,87), Margarita Eizagirre Rodriguez A. (% 3,86).

**Kontra: % 0,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**Lehena.-** 2022ko urtarrilaren 1eko eraginarekin Urola Erdiko Mankomunitateko eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.ren langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea onartzea, hau da, %2, 2021eko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuta.



#### **4. Transferentzia birtualaren jarduera eta transferentzia estaziorik ez duten mankomunitateen konpentsazioak erregulatzen dituzten hitzarmenen bigarren luza-pena onartzeko proposamena.**

Ikusirik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak 2021eko abenduaren 14ko saioan, hartutako erabakia:

**“LEHENA.-** *Transferentzia birtualaren jarduera eta Transferentzia Estaziorik ez duten Mankomunitateen konpentsazioak erregulatzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmenen bigarren luza-penaren proposamena onartu, urteko izaera dutenak, 2021eko ekitaldian ezartzeko. Horien gastua, aurreikusitakoa eta fiskalizatutakoa, 780.026 eurokoa da (aurrekontu partida 1.0001.461.162.30.06.2022).*

**BIGARRENA.-** *Aipatutako hitzarmena sinatu duten Mankomunitateei luza-pena azaldutako baldintzetan onartzeko proposatu eta Debagoienko Mankomunitateari, hitzarmena eta haren bi luza-penak onestea, 2021eko azaroko Batzarraren erabakiaren arabera,.*

**HIRUGARRENA.-** *Presidenteari ahalmena ematea erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren egintzak gauzatzeko, behar besteko zabaltasunez.”*

Kontuan harturik, proposatutako luza-penak onestea bidezkoa dela,

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 80,86**

Azkoitiko ordezkariak (%24,08): Javier Zubizarreta Zubizarreta J. (%12,04), Ana Azkoitia Urteaga A. (%12,04),

Azpeitiko ordezkariak (%46): Aitor Bereziartua Larrañaga J. den Lehendakaria (%15,33), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,34), Amaia Etxeberria Etxeberria A. (% 15,33).

Beizamako ordezkariak (% 0,16): Pedro Mari Otaegi Urkizu J. (% 0,16).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,06): Miren Agurtzane Zelaia. A. (%0,53), Joxe Erramun Goikoetxea Amiama J. (%0,53).

Errezilgo ordezkariak (%1,82): Xeberro Agirretxe Arruti J. (% 0,61), Bittori Otaegi Albeniz A. (% 0,61), Ane Ugartemendia Etxeberria (% 0,61)

Zestoako ordezkariak (% 7,73): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,87), Margarita Eizagirre Rodriguez A.





(% 3,86).

**Kontra: %0,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**LEHENENGOA.-** Transferentzia birtualaren jardura eta transferentzia estaziorik ez duten Mankomunitateekin konpentsazioak erregulatzen dizuten hitzarmenen bigarren luzapena onartzea.

**5. Berri ematea GHKk onartu dituelako 2021eko transferentzia birtuala duten Mankomunitateei kalteordaina ematea.**

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak 2021eko abenduaren 14ko ohiko saioan, hartutako akordioaren berri ematen zaie batzarkideei.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko batzarrak, onartutako hitzarmenen kargurako transferentziengatik eman beharreko konpentsazioak zehazteko, 2021 ekitaldirako, hurrengo akordioak hartu zituen:

**LEHENA.-** Transferentzia birtualagatiko konpentsazioen hitzarmenak 2021eko ekitaldiko urtarriletik urrira bitarteko hilabeteei dagozkienak, Urola kostako, Urola Erdiko, Tolosaldeko eta Txingudiko mankomunitateetan izango dituen ondorio ekonomikoak zehaztea da, eta Debagoienako Mankomunitateari epealdi horri dagozkion konpentsazioen zenbatekoa zehaztea. Konpentsazio horiek bi aldeek hitzarmena sinatu eta mankomunitateak lehenengo luzapena onartzen dituenean ordainduko dira. Transferentziagatiko 2021eko urtarriletik urrira bitarteko konpentsazioak honako zenbateko hauetakoak dira:

<b>MAKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD</b>	<b>GUZTIRA / TOTAL</b>
<b>DEBAGOIENA ERREFUSA</b>	68.552,61 €
<b>UROLA KOSTA</b>	145.775,63 €
<b>UROLA ERDIA</b>	79.121,36 €
<b>TOLOSALDEA</b>	103.104,70 €
<b>TXINGUDI</b>	226.863,48 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>623.417,76 €</b>



**BIGARRENA.**- Aurreko apartatuan azaltzen diren kopuruak baimentzea eta xedatzea eta presidentea ordainketak egiteko gaitzea.

**HIRUGARRENA.**- Interesdunei jakinaraztea.

## **6. Berri ematea abenduaren 28ko 20/2021 legearen arabera, Mankomunitateko lan zerrendan hutsik dauden lanpostu guztiak Lan Eskaintza Publikoan onartzeko ebazpenari buruz.**

Lehendakariak, abenduaren 28ko 20/2021 legearen arabera, Mankomunitateko eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA elkartearen lan zerrendan hutsik dauden lanpostu guztiak Lan Eskaintza Publikoan onartzeko egindako txosten juridikoa eta ebazpenari buruzko informazioa ematen du.

Bertan, Urola Erdiko Mankomunitatearen eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA sozietate publikoaren 2022. urterako aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko lan eskaintza publikoa onartzen duen ebazpena agertzen da.

## **7. Berankortasun txostena 2021/4 berri ematea.**

Lehendakariak, 2021. urteko laugarren hiruhilekoari dagozkion fakturak ordaintzeko epeei buruzko informazioaren berri ematen du, Kontuhartzailetzak egindako txostenaren arabera.

## **8. 2021eko aurrekontuaren likidazioa: ebazpenaren eta kontu-hartzailearen txostenaren berri eman.**

2021eko aurrekontuaren likidazioan ebazpenaren berri ematen da.

### **DEKRETUA**

Mankomunitate honen 2021(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau



## EBATZI DUT

**Lehena** .- Udal honen 2021(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

### DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2021-12-31n:		1.370.875,04
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		524.007,90
Aurrekontuko zordunak :	423.165,29	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	16.637,95	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		758.792,74
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	665.552,08	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	93.325,84	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	85,18	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		1.051.885,54
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		49.555,02
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.002.330,52

### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	374.527,93
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	80,22
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	105.347,66
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-49.555,02



5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	430.400,79
-----------------------------------	------------

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	375.927,05
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.172.579,60
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.548.506,65

**Bigarrena** .- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena** .- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Azpeitian, 2022ko martxoaren 17an  
Lehendakariak

#### 9. 2021eko gaikako bilketa-datuen berri ematea

Lehendakariak, 2021eko gaikako bilketa datuen berri ematen du.

#### 10. Ebazpenen berri ematea.

1. UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2021eko abenduaren 10ekoa, AZPEITIKO EDUKIIONTZIETAKO SARBIDE-KONTROLARI MANTENTZE LANAK EGITEKO, KONEKTAGARRITASUNA KUDEATZEKO ETA WEB BIDEZKO SOFTWAREA AHALBIDETZEKO zerbitzua, publiziterik gabeko jardunbide negoziatua eta ohiko izapidea erabiliz, kontratazio espedientearen kalitate-prezio erlaziorik onena lortu duen SEIGARBOST, S.L. enpresari errekerimendua luzatzekoa.
2. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2021eko abenduaren 10ean emandako Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Yobab Rubio Cabanillas jauna aldi batez



kontratzea 2021eko azaroaren 29tik 2021eko abenduaren 31a arte. Kontratua hondakin bilketaren arloan langileen oporraldian hondakinak biltzeko zerbitzua bermatzeko bitarteko lan kontratua da.

3. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2021eko abenduaren 13an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 34. zerrendako, gastua onartzea.
4. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2021eko abenduaren 13an emandako Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Imanol Huegun Salegi jauna aldi batez kontratatzea, gidari biltzaile lanak egiteko 2021eko azaroaren 25etik 2022ko urtarrilaren 31a arte.
5. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2021eko abenduaren 14an emandako ebazpena, "Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez bulegoko materialen hornidura kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esleitzea MONTTE S.L.
6. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2021eko abenduaren 15ean emandako ebazpena, "Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez ibilgailuen aseguru estaldurak kontratatzeko esparru akordiotik, (X21019)" eratorritako kontratu eratorria, esleitzea BILBAO COMPAÑIA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, SA.
7. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2021eko abenduaren 22an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 35. zerrendako, gastua onartzea.
8. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2021eko abenduaren 28an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 36. zerrendako, gastua onartzea.
9. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2021eko abenduaren 31an emandako Ebazpena, 2021-KALD-000007-00 kreditu aldaketa gaikuntza modalitatekoa espediente hasiera.
10. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2021eko abenduaren 31an emandako Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Juan Antonio Ostolaza Altuna jauna aldi batez kontratatzea, gidari-biltzaileen opor egunak egiteko 2021eko urriaren 11tik 2022ko otsailaren 6a arte.



- 11.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022ko urtarrilaren 1ean emandako Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Yobab Rubio Cabanillas jaunari kontratua luzatzea 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra arte. Kontratua hondakin bilketaren arloan langileen oporraldian hondakinak biltzeko zerbitzua bermatzeko bitarteko lan-kontratua da
- 12.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko otsailaren 01an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 38. zerrendako, gastua onartzea.
- 13.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko otsailaren 01an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 39. zerrendako, gastua onartzea.
- 14.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko urtarrilaren 12an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 37. zerrendako, gastua onartzea.
- 15.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 24koa, Unai Segurola Zubizarreta jaunari oso gaixotasun larria daukan ama zaintzeko baimena eta 2022ko urtarrilaren 26tik 2022ko otsailaren 26a arte lanaldiaren %50eko murrizketa onesteko.
- 16.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022ko urtarrilaren 27an emandako Ebazpena, Iñigo Garcia Juaristi jauna aldi batez kontratatzeko. Kontratua Azkoitiko garbiguneko langilea den Ramon Martija Urteaga ordezkatzeko behin behineko lan kontratua da.
- 17.** PROBIDENTZIA, honekin ematen dio hasiera Javier Sánchez Pozo - Marcel Niculaeren kontra AZK 05/2021 zigor-espedienteari Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2021eko abuztuaren 31a, hondakinaren arloan arau haustea egiteagatik.
- 18.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko otsailaren 1ean emandako Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Imanol Huegun Salegi jauna aldi batez kontratatzea, gidari biltzaile lanak egiteko 2022ko otsailaren 1etik 2022ko apirilaren 30a arte.
- 19.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko otsailaren 02an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 40. zerrendako, gastua onartzea.



- 20.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko otsailaren 02an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen, gastua onartzea.
- 21.** 2022ko martxoaren 4ko Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena, poltsa konpostagarrien hornidura kontratu txikiaren bitartez.
- 22.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, HAINBAT NEURRITAKO EDUKIONTZIEN HORNIDURAKO esparru akordioko, jardunbide irekia eta ohiko izapidea erabiliz, kontratazio espedientean kalitate-prezio erlaziorik onena lortu duen JCOPLASTIC IBÉRICA 2000 S.L. enpresari errekerimendua luzatzea.-kontratua esleitzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkeztea: 1. zatia-
- 23.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, HAINBAT NEURRITAKO EDUKIONTZIEN HORNIDURAKO esparru akordioko, jardunbide irekia eta ohiko izapidea erabiliz, kontratazio espedientean kalitate-prezio erlaziorik onena lortu duen JCOPLASTIC IBÉRICA 2000 S.L. enpresari errekerimendua luzatzea.-kontratua esleitzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkeztea: 2. zatia-
- 24.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, HAINBAT NEURRITAKO EDUKIONTZIEN HORNIDURAKO esparru akordioko, jardunbide irekia eta ohiko izapidea erabiliz, kontratazio espedientean kalitate- -kontratua esleitzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkeztea: 3. zatia-
- 25.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, HAINBAT NEURRITAKO EDUKIONTZIEN HORNIDURAKO esparru akordioko, jardunbide irekia eta ohiko izapidea erabiliz, kontratazio espedientean kalitate- -kontratua esleitzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkeztea: 4. zatia-
- 26.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko otsailaren 10ean emandako ebazpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralak irekitako energia elektrikoa hornitzeko espedienteari atxikitzea onartzeko.
- 27.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko otsailaren 10ean emandako ebazpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralak irekitako itzulpen eta interpretazio zerbitzuaren espedienteari atxikitzea onartzeko.



- 28.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko otsailaren 16an emandako Ebazpena, 2021 ko fakturen 41. zerrendako, gastua onartzea.
- 29.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko otsailaren 16an emandako Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Juan Antonio Ostolaza Altuna jauna aldi batez kontratatzeko, gidari-biltzailea den Joseba Gurrutxaba Mendizabal jaunaren ordezkapena egiteko.
- 30.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko otsailaren 18an emandako Ebazpena, 2022 ko fakturen 01. zerrendako, gastua onartzea.
- 31.** 2022ko otsailaren 9ko Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena, areto nagusiko internet konexioa hobetzeko hornidura, kontratu txikiaren bitartez.
- 32.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko otsailaren 18an emandako Ebazpena, zeinaren bidez bukatutzat jotzen baita Luis Echaniz Juaristi jaunarekin egindako hondakinen bilketa zerbitzua bermatzeko bitarteko lan-kontratua. Kontratua bukatzeko arrazoia honako hau da: gidari-biltzaile den Iosu Irulegi jaunak alta medikua jaso du eta titularra den lanpostura itzuli da.
- 33.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko otsailaren 24koa, HAINBAT NEURRITAKO EDUKIONTZIEN HORNIDURAKO esparru akordioa esleitzeko.
- 34.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko otsailaren 25a emandako Ebazpena, URIA ETXEBERRIA MARIA-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 35.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko otsailaren 25a emandako Ebazpena, LAN SINDIKATUA-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 36.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022ko martxoaren 2an emandako Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Yobab Rubio Cabanillas jaunari kontratua luzatzea 2022ko martxoaren 1etik 2022ko martxoaren 27ra arte. Kontratua hondakin bilketaren arloan langileen oporraldian hondakinak biltzeko zerbitzua bermatzeko bitarteko lan-kontratua da.
- 37.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 03a emandako Ebazpena, URKOME-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.





- 38.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 02a emandako Ebazpena, GARCIA ZENDOIA MAITE-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 39.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 03a emandako Ebazpena, BERTAN-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 40.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, emandako Ebazpena, BEREZIARTUA AROTZENA MIRARI-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa
- 41.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko martxoaren 03an emandako Ebazpena, 2022 ko fakturen 02. zerrendako, gastua onartzea.
- 42.** 2022ko martxoaren 4ko Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena web orria berritzeko zerbitzua kontratu txikiaren bitartez.
- 43.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK, 2022eko Martxoaren 04ean emandako Ebazpena, loritz Aizpuru(e)k ontzi berrerabilgarriak erabiltzeagatik jarritako findantzaren itzulketa onesteko.
- 44.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko martxoaren 4koa, hainbat neurritako edukiontzia hornitzeko esparru-akordioaren 3. lotearen esleipena indarrrik gabe uzten duena.
- 45.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko martxoaren 07an emandako Ebazpena, 2022 ko fakturen 03. zerrendako, gastua onartzea.
- 46.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 7an emandako ebazpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralak irekitako gas naturala hornitzeko espedienteari atxikitzea onartzeko.
- 47.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 07a emandako Ebazpena, LAB SINDIKATUA-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 48.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 07a emandako Ebazpena, UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.



- 49.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 7an emandako ebazpena, Nekane Etxebarria Allende andrea funtzionarioa izendatzea, hezitzailea den Oihana Eizagirre Askararen andrearen ordezkapena egiteko.
- 50.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 7an emandako Ebazpena, zeinaren bidez bukatutzat jotzen baita Nekane Etxebarria Allende andrearekin egindako hezitzaileen bitarteko funtzionario izendapena. Izendapena bukatzeko arrazoa honako hau da: hezitzailea den Gloria Hidalgo Benitez andrea amatasun egoeran zegoen eta titularra den lanpostura itzuliko da.
- 51.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 7an emandako ebazpena, 2021eko kitapenaren onarpen dekretua.
- 52.** UROLA ERDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko martxoaren 10ekoa, poltsa konpostagarrien hornidura, prozedura ireki bidez esleitzeko hasierako ebazpena.
- 53.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 11a emandako Ebazpena, BERTAN-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 54.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 11a emandako Ebazpena, GURRUTXAGA BEREZIARTUA IGNACIO-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 55.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 11a emandako Ebazpena, DOMUSA TEKNIK 40 MLK-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 56.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 11an emandako Ebazpena, Sulo Iberica S.A. enpresari hainbat neurritako edukiontzien hornidurako esparru akordioaren 3. zatiari jarritako fidantzan itzulketa onesteko.
- 57.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko martxoaren 14koa, HAINBAT NEURRITAKO EDUKIONTZIEN HORNIDURAKO esparru akordioko, jardunbide irekia eta ohiko izapidea erabiliz, kontratazio espedientean kalitate-prezio erlazorik onena lortu duen JCOPLASTIC IBERICA 2000 SL enpresari errekerimendua luzatzea. -kontratua esleitzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkeztea: 3. zatia-



- 58.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK, 2022KO MARTXOAREN 16AN EMANDAKO EBAZPENA, TRES MARES S.A. ENPRESARI INDUSTRIA ETA ENPRESA-GUNEEN HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUA ETETEARI BURUZKOA.
- 59.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko martxoaren 18an emandako Ebazpena, 2022 ko fakturen 04. zerrendako, gastua onartzea.
- 60.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 21a emandako Ebazpena, ARRIZABALAGA UMEREZ XUBAN-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 61.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 23a emandako Ebazpena, AZPEITIKO UDALA-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 62.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 24a emandako Ebazpena,
- 63.** URKOME-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 64.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko martxoaren 25ean emandako Ebazpena, 2022 ko fakturen 05. zerrendako, gastua onartzea.
- 65.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 29a emandako Ebazpena, GURRUTXAGA BEREZIARTUA IGNACIO-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 66.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko martxoaren 29an emandako Ebazpena, Contenur S.A. enpresari kontratazioko fidantzaren itzulketa onesteko.
- 67.** UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, 2022ko martxoaren 31koa, HAINBAT NEURRITAKO EDUKIONTZIEN HORNIDURAKO esparru akordioaren 3 lotea esleitzeko.
- 68.** 03-31 ic\_h\_hasiera\_dekretua Kreditu aldaketa 1-2022 TXERTAKETA 1 onartzea Kreditu aldaketa 1-2022 TXERTAKETA 1Azpeitian, 2022ko apirilaren 12an



- 69.** 2022ko apirilaren 6ko Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena, 50 litroko poltsa konpostagarrien hornidura, kontratu txikiaren bitartez.
- 70.** 2022ko apirilaren 6ko Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena, MIFARE txartelen hornikuntza, kontratu txikiaren bitartez.
- 71.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko apirilaren 07a emandako Ebazpena, BIDASORO,AGIRRE,UNAI-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 72.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2022eko apirilaren 08an emandako Ebazpena, 2022 ko fakturen 07. zerrendako, gastua onartzea.
- 73.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko apirilaren 8an emandako ebazpena, "Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez informatikako ekipoen hornidura kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esleitzea VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI S.L.
- 74.** 04-08. ca\_h\_hasiera\_dekretua kreditu aldaketa 2-2022 GEHIGARRIAK 1.
- 75.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko apirilaren 11a emandako Ebazpena, IBARGUREN,URBIETA,IGOR-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.
- 76.** Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko apirilaren 11a emandako Ebazpena, URKOME-ri Azoka plazako lehen solairuko aretoa uztekoa.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakariak amaiera eman dio Batzar Nagusiari arratsaldeko 18:55ean. Eta horren guztiaren fede ematen dut idazkari kontu-hartzailea naizen honek.

**ONTZAT EMANA**  
**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN**  
**LEHENDAKARIAK**

**IDAZKARI**  
**KONTU-HARTZAILEAK**



Aitor Bereziartua Larrañaga

Olatz Eizagirre Orbegozo